

IRAGARKIA, 2004ko urriaren 14koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Bizkaiko Lurralde-Bulegoko buruarena. Horren bidez ondoko instalazioa jendaurrean ikusgai jarriko da: «Muxikako B presio erdiko sarea» izena duen eta Muxikako (Bizkaia) udal mugartean dagoen etxeeko eta merkatatzako erabilerarako gas naturalaren sarea.	22046
IRAGARKIA, 2004ko azaroaren 2koa, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariarena, meatze erregistroen eskabidea jendaurrean jartzen duena.	22050
IRAGARKIA, Saileko Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariarena, Bilbon dagoen «Mina Malaespera» izeneko lurpeko egitura ustiapenerako eskabideari buruzkoa.	22050

ANUNCIO de 14 de octubre de 2004, del Jefe de la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo de Bizkaia, por el que se somete a información pública la siguiente instalación: Red de gas natural para usos domésticos y comerciales denominada «Red de Media Presión B de Muxika», en el término municipal de Muxika (Bizkaia). 22046

ANUNCIO de 2 de noviembre de 2004, del Director de Administración de Industria y Minas, por el que se somete a información pública la solicitud de registros mineros. 22050

ANUNCIO de la Dirección de Administración de Industria y Minas, sobre solicitud de aprovechamiento de la estructura subterránea denominada «Mina Malaespera», situada en el término municipal de Bilbao. 22050

## Pribatuen Iragarkiak

### LANTIK, S.A.

IRAGARKIA, erabiltzailee arreta eta laguntza teknikoa emateko enpresak homologatzeko lehiaketari buruzkoa (4 enpresa gehienez).	22051
---	-------

## Anuncios Particulares

### LANTIK, S.A.

ANUNCIO relativo al concurso de homologación de empresas para la prestación de servicios de soporte y asistencia técnica (máximo 4 empresas). 22051

## Xedapen Orokorrak

### OSASUN SAILA

#### Zk-6212

AGINDUA, 2004ko azaroaren 12koa, Osasun sailburuarena, Euskadiko sistema sanitarioaren praktika asistenzialean osasun-teknologiak sartzeko prozedura ezartzen duena.

Osasunaren arloan gertatzen ari diren aurrerapen zientifiko-tekniko etengabeek asistenzia sanitarioan teknika edo prozedura berriak sartzea dakarte. Horien artean, Osasun Teknologia berriak eta emergenteak deitzten direnak arreta berezia merezi dute. Teknologia horiek ezagutzan eta experimentazio zientifikoan oinarritzen dira eta eurei esker Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioen ordenazioari buruzko urtarilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak bermatzen dituen osasun-prestazioak eraginkor bihurtzen dira.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

#### Nº-6212

ORDEN de 12 de noviembre de 2004, del Consejero de Sanidad, por la que se establece el procedimiento para la incorporación de tecnologías sanitarias en la práctica asistencial del sistema sanitario de Euskadi.

Los continuos avances científico-técnicos que se vienen produciendo en el campo de la sanidad implican la introducción de nuevas técnicas o procedimientos en la asistencia sanitaria, entre las que merecen atención especial las denominadas Tecnologías Sanitarias nuevas y emergentes, basadas por lo demás en el conocimiento y la experimentación científica, mediante las que se hacen efectivas las prestaciones sanitarias garantizadas por el Real Decreto 63/1995, de 20 de enero, sobre ordenación de prestaciones sanitarias del Sistema Nacional de Salud.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren praktika asistencialaren eta hitzartutako osasun-egituren eremuan berrikuntza horiek ezartzea, hitzartu bezain laster, eskuratzeari, kontu hartzeari eta bere prestazioaren araubideari dagokionez kalitatea, segurtasuna, eraginkortasuna eta zuzentasuna bermatuz egin beharko da.

Edozein osasun-teknologia sartzeko erabakia Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoko osasun-egituren eta zuzendaritzaren barruan hartzen da, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak onetsitako estatutu sozialean ezarritakoaren eta Administracio Kontseiluak hartutako erabakien arabera.

Hala ere, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuaren 12. artikuluaren arabera, kontuan hartu behar da Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari honako eskumen hau dagokiola: «osasunari buruzko teknologien eta prozesuen auditoretza eta ebaluazioarekin zerikusia daukaten administracio-jardunak garatzea» eta «osasun-prestazioen zorroari buruzko eta biztanleria dauen osasun-premiei jaramon egiteko baliabideei buruzko irizpide eta norabide estrategikoak proposatzea».

Agindu honen bitartez, aipatutako bi antolamendu-arauetan dauden aurreikuspenak garatzen dituen procedura bat ezartzen da. Procedura horrek bi hauek batzteratzen ditu: batetik, osasun-teknologien inkorporazioa baimentzeko Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzari dagozkion eskumenen jarduketa, eta, bestetik, zerbitzu-zorroei buruzko norabideak ezartzeko eta euren egokitasuna neurtzeko Osasun Sailak esleituta dauzkan eskumenak.

Ondorioz,

#### XEDATZEN DUT:

##### **1. artikulua.**— Helburua eta xedea.

Antolamenduan edo ekonomian eragina izan dezaketen bai Euskadiko sistema sanitarioa eta bai osasun-teknologia berriak edo emergenteak praktika asistenzialean inkorporatzeari, aurretiko ebaluazio-prozedura sanitario bat ezartzen zaio, Agindu honetan aurreikusten denaren arabera, hauxe baita Agindu horren xedea: teknologia horien eraginkortasuna, zuzentasuna, segurtasuna, erabilgarritasun terapeutikoa, kostu-era gingarritasuna eta zerbitzu-zorroan kontuan hartu behar diren gainerako printzipioak zehaztea.

##### **2. artikulua.**— Definizioak.

1.— Agindu honi dagozkion eraginetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

Osasun Teknologia: pazienteen osasuna hobetzeko edo sustatzeko, gaixotasunak prebenitzeko edo tratatzeko eta epe luzera errehabilitatzeko eta zainketa emate-

La aplicación de estas novedades en el ámbito de la práctica asistencial de Osakidetza-Servicio vasco de salud y de las estructuras sanitarias concertadas, en cuanto esté concertado, debe realizarse con las máximas garantías de calidad, seguridad, eficacia, eficiencia y equidad en cuanto al acceso, administración y su régimen de prestación.

La decisión de introducir cualquier tecnología sanitaria se adopta, en el seno de las estructuras sanitarias y de dirección propias del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, de conformidad con lo dispuesto en los estatutos sociales aprobados por Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, y con los acuerdos adoptados por el Consejo de Administración.

No obstante, ha de tenerse en cuenta que, de conformidad con el artículo 12 del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, corresponde a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria la competencia relativa a «desarrollar las actuaciones administrativas relacionadas con la evaluación y auditoría de los procesos y tecnologías sanitarias» y «proponer las directrices y criterios estratégicos sobre la cartera de prestaciones sanitarias y sobre los recursos necesarios para la atención de las necesidades de salud de la población».

Mediante la presente Orden se establece un procedimiento que, desarrollando las previsiones contenidas en las dos normas organizativas aludidas, conjuga el ejercicio de las competencias que corresponden a Osakidetza-Servicio vasco de salud para autorizar la incorporación de tecnologías sanitarias con las que tiene asignadas el Departamento de Sanidad para evaluar su idoneidad y para establecer las directrices sobre la cartera de servicios.

En su virtud,

#### DISPONGO:

##### **Artículo 1.**— Objeto y finalidad.

La incorporación en la práctica asistencial, del sistema sanitario de Euskadi, de las tecnologías sanitarias nuevas o emergentes que puedan suponer impacto organizativo o económico se somete a un procedimiento previo de evaluación sanitaria, de conformidad con lo que se prevé en la presente Orden y que tiene como finalidad determinar su eficacia, eficiencia, seguridad, utilidad terapéutica, coste-efectividad y demás principios a tener en cuenta en la elaboración de la cartera de servicios.

##### **Artículo 2.**— Definiciones.

1.— A los efectos de esta Orden, se establecen las siguientes definiciones:

Tecnología Sanitaria: todos los dispositivos, equipos, métodos, medicamentos y procedimientos de tipo diagnóstico y terapéutico empleados por los profesionales

ko profesional sanitarioek erabiltzen dituzten diagnos-tikoaren eta terapiaren inguruko gailu, ekipamendu, metodo, medikamentu eta prozedura guztiak.

Osasun Teknologia Berria: praktika klinikoa orain dela gutxi sartu dena edo hemendik gutxira sartuko de-na.

Osasun Teknologia Emergentea: praktika klinikoa hartzeko edo onartzeko aurretiko fasean aurkitzen de-na.

2.– Osasun Teknologia Berriak eta Emergentea ize-neko terminoek ikerketa-fase aplikatuan aurkitzen di-ren teknologiak barne hartzen dituzte. Fase horretan dauden teknologia horiek, Saiakuntza Klinikoaren fa-sea igaro dute baina euren erabilera ez da hedatu.

### 3. artikulua.– Proceduraren hasiera.

1.– Osasun-teknologia berriak edo emergenteak eba-luatzeko prozedura Osakidetza-Euskal Osasun Zerbi-tzuaren zerbitzu sanitarioetako erakundeen Gerentziek, Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzek, Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak edo Osasun sailburuak es-katuta hasiko da.

2.– Eskabideekin batera memoria tekniko eta fun-tzional bat entregatuko da, I. eranskinean eransten den ereduaren arabera.

3.– Osasun-teknologiak inkorporatzeko eskabideak Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara bidaliko dira, bertan ebaluatuak izan daitezen.

4.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zerbi-tzu sanitarioetako Erakundeetatik datozen eskabideak, nolanahi ere, Ente Publikoaren Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren bitartez bidaliko dira.

### 4. artikulua.– Osasunaren ebaluazioa eta balidazioa.

1.– Osasun-teknologia berriak edo emergenteak in-korporatzeko eskabideak jaso ondoren, Osasun Tekno-logiak Ebaluatzeko Zerbitzuaren (Osteba) txostena es-katuko da. Txosten horrek gai hauek jorratuko ditu: emandako informazioaren nahikotasuna, teknikaren se-gurtasun, erabilgarritasun, kostu eta eragingarritasuna, edo proposatutako osasun-teknologiarren auditoretza-eta ebaluazio-prozesu bati ekiteko beharra, lan-eredu normalizatuen arabera. Medikamentu bat izango balitz, txostena Medikamentuei buruz Informatzeko Euskal Zentroari (Miez) eskatuko zaio.

2.– Osasun-teknologia inkorporatzearren konplexu-tasunak hala eskarzen duenean, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak Aholku Batzordeari (Agindu honen 7. artikuluak sortutakoäri) zera eskatu ahal izango dio, aurreko atalean nabarmendutako iriz-pideak begiesten dituen txosten bat aurkeztea edo ahol-ku ematea.

3.– Txostenak bidali edo dagozkion auditoretza- eta ebaluazio-prozesuak egin ondoren, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak proposamen bat prestatuko du. Proposamen hori Asistentzia Sanitario-

sanitarios para promover o mejorar la salud de los pa-cientes, prevenir o tratar las enfermedades, rehabilitar o proporcionar cuidados a largo plazo.

Tecnología Sanitaria Nueva: aquélla que ha sido re-cientemente introducida en la práctica clínica o que va a ser incorporada en breve.

Tecnología Sanitaria Emergente: aquélla que se en-cuentra en la fase previa a su aceptación o adopción en la práctica clínica.

2.– Los términos Tecnologías Sanitarias Nuevas y Emergentes incluyen aquéllas que se encuentran en la fase de investigación aplicada habiendo pasado la fase de Ensayo Clínico pero cuyo uso no se ha extendido.

### Artículo 3.– Iniciación del procedimiento.

1.– El procedimiento de evaluación de tecnologías sanitarias nuevas o emergentes se iniciará a solicitud de las Gerencias de las organizaciones de servicios sanita-rios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de las Di-recciones Territoriales de Sanidad, de la Dirección Ge-neral del Ente Público o del Consejero de Sanidad.

2.– Las solicitudes irán acompañadas de una memo-ria técnica y funcional, de acuerdo al modelo que se ad-junta como anexo I.

3.– Las solicitudes de incorporación de tecnologías sanitarias se remitirán para su evaluación a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del De部分amento de Sanidad.

4.– Las solicitudes provenientes de las Organiza-ciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio Vas-co de salud se remitirán, en todo caso, a través de la Di-rección de Asistencia Sanitaria del Ente Público.

### Artículo 4.– Evaluación y validación sanitaria.

1.– Recibidas las solicitudes de incorporación de tec-nologías sanitarias nuevas o emergentes, se solicitará in-forme del Servicio de Evaluación de Tecnologías Sani-tarias (Osteba) que se pronunciará sobre la suficiencia de la información aportada y la seguridad, utilidad, cos-te y efectividad de la técnica, o la necesidad de acom-e-ter un proceso de evaluación y auditoría de la tecnolo-gía sanitaria propuesta conforme a los estándares nor-malizados de trabajo. Cuando se trate de un medica-mento, el informe se solicitará al Cevime.

2.– Cuando la complejidad de la incorporación de la tecnología sanitaria lo requiera, la Dirección de Plani-ficación y Ordenación Sanitaria podrá requerir a la Co-misión Asesora, creada en el artículo 7 de esta Orden, el asesoramiento o la elevación de un informe que con-temple los criterios señalados en el apartado anterior.

3.– Una vez emitidos los informes o realizados los procesos de evaluación y auditoría correspondientes, la Dirección de Planificación y Evaluación Sanitaria elab-orará una propuesta que se remitirá a la Dirección de

ko Zuzendaritzara bidaliko da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusira helarazteko; era berean, proposamena Administrazio Kontseilura aurkeztuko da. Hitzartutako asistentzia sanitarioaren kasuan, proposamena Osasun sailburuordeari bidaliko zaio, Osasun Saileko Zuzendaritza Kontseilura helarazia izan dadin.

4.– Proposamenarekin batera honako agiri hauek entregaratu dira:

a) Osasun Teknologia berriaren edo emergentearen premiaren justifikazio memoria, Osasun-planetik datozenten alderdi sanitarioak, sozialak, legalak, etikoak edo bere ezarpenetik erator daitezkeen beste batzuk azpimarratuz. Era berean, egoeraren araberakoa edo iraunkorra den programa, prestazio edo zerbitzu bat den adieraziko da.

b) Bere ezarpenak dakartzan baliabide materialen eta giza baliabideen premiak azaltzen dituen memoria.

c) Urteko oinarrian estimatutako kostuaren memoria ekonomikoa. Memoria horretan, zehazki, honako datu hauek jasoko dira: langileen gastuak (kategorien arabera sailkatuta), gizarte-kostuak, inbertsioak eta programa, prestazio edo zerbitzu berriaren ustiapen-kostu guztiak. Paraleloki finantzaketa-bideak (programa-kontrataua, konzertua edo beste batzuk) ezarri beharko dira.

d) Hala balegokio, osasun-teknologia eta prozesuen auditoreta eta ebaluazioari buruz igorritako txostenak edo irizpenak.

**5. artikulua.–** Tramitazioa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren aurrean.

1.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak aurkezten dituen proposamenak, berriro aztertuak izan daitezen, onetsiko, ukatuko edo igorriko ditu, aurreko artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera.

2.– Erabiltzeko moduan dagoen ebidentzia zientifikoaren arabera, Osasun Teknologia berri eta emergente batzuk Administrazio Kontseiluak kontrol eta preskripzio berezi gisa kontuan hartu ahal izango ditu eta baimena lortu ondoren, Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren eta Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren bitartez ezarriko diren adierazteko, gauzatzeko eta ebaluatzezko irizpide espezifikoen menpe geratuko dira.

3.– Osasun Teknologia berriak eta emergenteak Osakidetza inkorporatzeko den Administrazio Kontseiluak emandako baimenak adieraziko du zeintzuk Zen-trok duten baimena teknologia horiek inkorporatzeko.

4.– Fase experimentaleko Osasun Teknologia emergenteak Osakidetza inkorporatzeko den Administrazio Kontseiluak emandako baimenak honako hauek kontuan hartuko ditu: pertsonaren oinarrizko eskubideekiko errespetua eta gizakiekin egindako ikerketa

Asistencia Sanitaria para su traslado a la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud con el fin de su presentación al Consejo de Administración. En el caso de que se trate de asistencia sanitaria concertada, la propuesta se remitirá al Viceconsejero de Sanidad para su traslado al Consejo de Dirección del Departamento de Sanidad.

4.– La propuesta irá acompañada de la siguiente documentación:

a) Memoria justificativa de la necesidad de la Tecnología Sanitaria nueva o emergente, haciendo hincapié en aspectos sanitarios derivados del Plan de Salud, sociales, legales, éticos u otros que se deriven de su implantación. Asimismo, se indicará si se trata de un programa, prestación o servicio coyuntural o permanente.

b) Memoria explicativa de las necesidades de medios materiales y humanos derivados de su implantación.

c) Memoria económica del coste estimado en base anual, donde se recoja, con detalle, los gastos de personal (clasificado por categorías), costes sociales, inversiones y todos los costes de explotación del nuevo programa, prestación o servicio. Paralelamente deberán establecerse las vías de financiación (contrato programa, concierto u otros).

d) En su caso, los informes o dictámenes emitidos sobre la evaluación y auditoría de los procesos y tecnologías sanitarias.

**Artículo 5.–** Tramitación ante el Consejo de Administración de Osakidetza/Servicio vasco de salud.

1.– El Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, aprobará, denegará o remitirá para nuevo estudio, las propuestas que, conforme al procedimiento establecido en los artículos anteriores, sean presentadas por la Dirección General del Ente Público.

2.– En función de la evidencia científica disponible, algunas Tecnologías Sanitarias nuevas y emergentes podrán ser consideradas por el Consejo de Administración como de especial prescripción y control, quedando sujetas, tras su autorización, a los criterios específicos de indicación, realización y evaluación que se establezcan a través de la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza y de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

3.– La autorización del Consejo de Administración para la incorporación a Osakidetza de Tecnologías Sanitarias nuevas o emergentes indicará el Centro o Centros donde se autoriza su incorporación.

4.– La autorización del Consejo de Administración para la incorporación a Osakidetza de Tecnologías Sanitarias emergentes en fase experimental tendrá en cuenta el respeto a los derechos fundamentales de la persona y los postulados éticos que afecten a la investiga-

biomedikoarengan eragina daukaten postulatu etikoak; horretarako, Helsinkiko Adierazpenaren edukiak eta hurrengo eguneratzeak beteko dira.

**6. artikulua.**— Baimendutako osasun-teknologiak inkorporatzea.

1.— Administrazio Kontseiluak baimendutako edozein Osasun Teknologia berri edo emergente Zentro batetan estreinako aldiz martxan jartzeko, eta Zentro eskatzailearentzat inkorporazio berria badin bada, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren baimena beharko du, Ente Pùblicoaren eta Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren plangintzako irizpide orokoren arabera.

2.— Osakidetzako Zerbitzuetako Erakundeengen gerentziek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzari bertan behera uzten diren prozedura eta teknika asistentzialak zeintzuk diren jakinarazi beharko diozkiote, arrazoiak eta, hala balego kio, haien ordezkatzen dituzten baimendutako prozedura edo teknika azalduz.

**7. artikulua.**— Teknologiak inkorporatzeko Aholku Batzordea.

1.— Osasun Sailari atxikitako Teknologiak inkorporatzeko Aholku Batzordea sortzen da.

2.— Honako hauek izango dira Batzordeak izango dituen eginkizunak:

a) Osasun Teknologia berriak edo emergenteak hitzartutako zentroetan eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan inkorporatzeko helarazten diren eskabideen berri ematea.

b) Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari erabakiak hartzeko aholku ematea.

c) Beharrezkoa izango balitz, aurkeztutako proposamenei buruzko aukerak proposatzea.

d) Hala balegokio, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren Osasun Teknologiak Ebaluatzeako Zerbitzuak txostenak egin ditzala eskatzea. Txosten horiek, osasun-teknologien eta prozesuen auditorezarekin eta ebaluazioarekin zerikusia daukate.

e) Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Kontseiluak eskatzen dituen osasun-teknologiei eta prozesuei buruzko arazoengen berri ematea.

3.— Batzordeko presidentea Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren titularra izango da; edo bestela, berak eskuordetza eman dion pertsona. Presidentearaz gain, Batzordea sei batzordekidek osatuko dute eta honako banaketa hau izango du:

a) Osasun-planeko Zuzendariordetzaren titularra.

b) Koordinazio ekonomikoaren Zuzendariordetzaren titularra.

ción biomédica con seres humanos, siguiéndose a estos efectos los contenidos en la Declaración de Helsinki y sucesivas actualizaciones.

**Artículo 6.**— Incorporación de tecnologías sanitarias autorizadas.

1.— La puesta en marcha en un Centro de cualquier Tecnología Sanitaria nueva o emergente ya autorizada por el Consejo de Administración y que sea una nueva incorporación para el Centro solicitante, será autorizada por la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud de acuerdo con los criterios generales de planificación del Ente Público y de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

2.— Las gerencias de las Organizaciones de Servicios de Osakidetza deberán comunicar a la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud las técnicas y los procedimientos asistenciales que se dejan de realizar, explicando los motivos y, en su caso, la técnica o procedimiento autorizado que les sustituyen.

**Artículo 7.**— Comisión Asesora para la incorporación de Tecnologías.

1.— Se crea la Comisión Asesora para la incorporación de Tecnologías, adscrita al Departamento de Sanidad.

2.— Las funciones de la Comisión serán:

a) Informar las solicitudes que le sean trasladadas para la incorporación en Osakidetza-Servicio vasco de salud y centros concertados de Tecnologías Sanitarias nuevas o emergentes.

b) Asesorar a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria para la toma de decisiones.

c) Proponer, si fuera preciso, alternativas sobre las propuestas elevadas.

d) Solicitar, en su caso, la elaboración de informes por el Servicio de Evaluación de Tecnologías Sanitarias de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, relacionados con la evaluación y auditoría de los procesos y tecnologías sanitarias.

e) Informar cuantas cuestiones relativas a procesos y tecnologías sanitarias sean solicitadas por la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria y por el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

3.— La Comisión estará presidida por la persona titular de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, o persona en quien delegue, y estará integrada por seis vocales según la siguiente distribución:

a) La persona titular de la Subdirección del Plan de Salud.

b) La persona titular de la Subdirección de Coordinación económica.

c) Osasun Teknologiak Ebaluatzeko Zerbitzuaren buruzagitzan aritzen den pertsona.

d) Medikamentuak Zaintzeko Zerbitzuaren buruzagitzan aritzen den pertsona.

e) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Lehen Mailako Atentzioko Zuzendariordeztako titularra.

f) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Atentzio Espezializatuko Zuzendariordeztako titularra.

4.- Aholku Batzordearen lehendakaritzak proposaturik, beste pertsona batzuk ere joan ahal izango dira Batzordeak egingo dituen bileretara, eta euren jarduerak garatzeko laguntza eman ahal izango dute, baldin eta jorratuko diren gaietan eskumena aitortu bazaie eta euren ekarpenak interesgarritzat jotzen badira. Aldez aurretik esandakoari kalterik egin gabe, organo proposamengileak, nolanahi ere, Batzordearen aurrean proiekta aurkeztuko du.

5.- Batzordea azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administratio Prozedura Erkideari buruzkoak, zuzenduko du.

6.- Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren arabera egokitu ahal zaien dietei eta kalte-ordainei kalterik egin gabe, Aholku Batzordearen kideek eta laguntzaileek ez dute inolako ordainketarik eskuratuko Batzordean egoteagatik edo laguntza emateagatik.

7.- Konsulta Batzordeak funtzionatzeko behar duen administrazio-euskarria Osasun Sailak emango du.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan ezarritako procedura Osatek S.A. izeneko zerbitzuen erakundeari ezar dakioke; hala ere, Osasun Teknologia berriak eta emergenteak inkorporatzeko ukapena edo baimena Sozietate Publikoaren Administrazio Kontseiluari dagokio.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko azaroaren 12a.

Osasun sailburua,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRÍBAR.

c) La persona que ejerza la jefatura del Servicio de Evaluación de Tecnologías Sanitarias.

d) La persona que ejerza la jefatura del Servicio de Vigilancia del Medicamento.

e) La persona titular de la Subdirección de Atención Primaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

f) La persona titular de la Subdirección de Atención Especializada de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

4.- A propuesta de la presidencia de la Comisión Asesora podrán acudir a las reuniones que se celebren, y colaborar en el desarrollo de sus actividades, otras personas de reconocida competencia en los temas a tratar, y cuyas aportaciones sean consideradas de interés. Sin perjuicio de lo anterior, el órgano proponente presentará, en todo caso, el proyecto ante la Comisión.

5.- La Comisión se regirá por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6.- Sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que conforme al Decreto 16/1993, de 2 de febrero, les puedan corresponder, los miembros y colaboradores de la Comisión Asesora no percibirán retribución alguna por su pertenencia o colaboración con la misma.

7.- El soporte administrativo necesario para el funcionamiento de la Comisión Consultiva será provisto por el Departamento de Sanidad.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

El procedimiento establecido en la presente Orden es aplicable a la organización de servicios Osatek, S.A., si bien será el Consejo de Administración de la Sociedad Pública quien autorice o deniegue la inclusión de Tecnologías Sanitarias nuevas y emergentes.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2004.

El Consejero de Sanidad,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRÍBAR.

## ERANSKINA

### OTB edota OTEak SARTZEKO ESKABIDEA EGITEKO MEMORIA

ZENTROA/ZERBITZU-ERAKUNDEA:

ZERBITZUA/UNITATEA:

PROPOSATUTAKO TEKNIKA/PROZEDURA/METODOA/MATERIALA:

A.- TEKNOLOGIAREN DESKRIBAPENA. APLIKAZIO-EREMUA (Diagnostikoa, tratamendua, prebentzioa, antolamendua).

B.- PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA (Antolamenduan, ekonomian... duen eragina baloratzea).

C.- AURREKARIAK, GAUR EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.

D.- PROZEDURA EZAGUTZEKO MODUA ETA PRESTAKUNTZA-MAILA, EGONGO BALITZ.

E.- ABANTAILAK/ARRISKUAK.

F.- ADIERAZPENAK.

G.- LEHENDIK DAGOEN PROZEDURA ORDEZKATZEN AL DU?

Zein? ..... Zein portzentajetan? .....

H.- AUKERA TEKNOLOGIKOAK.

I.- BALORAZIO EKONOMIKOA :

(Inbertsioak, langileen kostuak, gizarte-kostuak, ustiapen-kostuak...eta finantzaketa-bideak).

J.- BEHAR DITUEN BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

K.- KONTUAN HARTZEKO BESTE OHAR BATZUK.

ZENTROAREN ZUZENDARITZA MEDIKOA/ERIZAINTZAREN TXOSTENA

GERENTZIAREN ADOSTASUNA

ANEXO

*MEMORIA PARA LA SOLICITUD DE INCORPORACIÓN DE T.S.N y/o T.S.E*

*CENTRO/ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS:*

*SERVICIO/UNIDAD:*

*TÉCNICA/PROCEDIMIENTO/MÉTODO/MATERIAL PROPUESTO:*

*A.- DESCRIPCIÓN DE LA TECNOLOGÍA. ÁMBITO DE APLICACIÓN (diagnóstico, tratamiento, prevención, organización).*

*B.- JUSTIFICACIÓN DE LA PROPUESTA (valorar el impacto organizativo, económico...).*

*C.- ANTECEDENTES, DESCRIPCIÓN DE LA SITUACIÓN ACTUAL.*

*D.- FORMA DE CONOCIMIENTO DEL PROCEDIMIENTO Y GRADO DE FORMACIÓN SI LO HUBIERE.*

*E.- VENTAJAS/RIESGOS.*

*F.- INDICACIONES.*

*G.- ¿SUSTITUYE A OTRO PROCEDIMIENTO YA EXISTENTE?*

*¿Cuál? ..... ¿en qué porcentaje? .....*

*H.- ALTERNATIVAS TECNOLÓGICAS.*

*I.- VALORACIÓN ECONÓMICA (inversiones, costes de personal, sociales, de explotación...y vías de financiación).*

*J.- MEDIOS MATERIALES Y HUMANOS QUE PRECISA.*

*K.- OTRAS CONSIDERACIONES.*

*INFORME DE LA DIRECCIÓN MÉDICA/ENFERMERÍA DEL CENTRO*

*CONFORMIDAD DE LA GERENCIA*